

Donostia, 2016ko irailaren 23a

## IDAZKARI NAGUSIARI:

### KONTROL MOZIOA, UDAL ERAIKINETAN EGINDAKO HAZKUNTZA HIDROPONIKO EDO AEROPONIKOAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, eraikin publikoetan egindako hazkuntza hidroponiko edo aeroponikoak direla eta hil honetan Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean egindako interpelazioaren ondorioztat.

## JUSTIFIKAZIOA

Irabazi Donostiakook funtsezkotzat dugu enplegu publikoa sustatzearen aldeko proiektuak aurrera eramatea, eta uste dugu oso erakargarria izan daitekeela hirian hazkuntza teknika eta gune berriak garatzeari dagokiona.

Tabakaleran, Hirikilabs (kultura digitalaren eta teknologiaren laborategia) gunearen barruan, joan den otsailean ezagutarazi ziren Plaza proiektuak, hurrengo hilabeteetan garatu beharrekoak (<http://www.euskaditecnologia.com/proyectos-tecnologicos-colaborativos-y-abiertos-de-hirikilabs/>); lankidetzazko proiektu teknologiko irekiak, lantaldeen bidez herritarren parte hartze irekia dutenak. Aurrera eraman diren ekimenen artean, etxeko erabilerako berotegi txikiarena dago. Proiektu honek lurrik gabe landareak ekoizteko aukera garatzen du, teknika hidroponikoa edo aeroponikoa erabiliz. Hazkuntza mota hori sistema itxi bat egitean datza; sistema horretan, automatizazioz, landareen hazte parametro nagusiak kontrola daitezke, hala nola: ura, elikagarriak, pH-a, airearen eta uraren tenperatura, hezetasun erlatiboa, CO<sub>2</sub> kontzentrazioa, argia eta uraren oxigenazioa.

Eraikin bateko teilatu laua landare bizitzaz ereitearen onurak asko dira. Hasteko, eraikinaren energia eraginkortasuna hobetzen da. Landare-estalkiak isolamendu termikoa eta hezetasuna handitzen du, eta *bero uhartea* efektua murrizten. Tenperaturetan egonkortasuna dakar: udan bero txikiagoa egiten du; eta neguan, hotz txikiagoa. Era berean, hots kutsadura murrizten du, eta airearen kalitatea hobetzen. Horretaz guztiaz gainera, onura dakarte hiri eremuak berdez estaltzeak eta jan daitezkeen elikagaiak ekoizti ahal izateak.

Proiektu horretatik abiatuta, eta ikusirik hazkuntza mota horrekin hainbat hiritan aurrera eramaten ari diren esperientziak, Donostian proiektu bat sortzea proposatzen dugu. Hartara, Coruñan, konparazio baterako,

hazkuntza hidroponikoak egin dituzte hiriko enplegu zentroan. Bartzelonan, hiri baratzearen proiektu bat gauzatu dute, Institut Municipal de Persones amb Discapacitat erakundearen teilatu lauan. Malagako Udalaren Hirigintzako egoitzan ezaugarri horiek dituen proiektu pilotu bat gauzatu dute, landare-estalkia jarrita.

Dagoeneko esan dugunez, formula bikaina da enplegu publikoa sustatzea eta hazkuntzako teknika nahiz gune berriak garatzea bateratzeko. Gainera, premia biziko produktuak atera daitezke, eta inguruko hezkuntza nahiz osasun zentroetan jan daitezen bana daitezke.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zigun Ingurumenekoak hainbat proiektu lantzen ari direla, hiri laboreei buruzkoak, hala nola hiri baratzeak gehitzearena, Guztiona programa, eta hazkuntzak sartzearren teilatu lauek dakarten aukera.

Horrexegatik aurkezten dugu ondorengo

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio aurrera eraman dezala proiektu pilotu bat, udal eraikinetan hazkuntza hidroponiko edo aeroponikoak jartzekoa, luzaroko langabeentzat, aipatu tekniketan enplegua izateko beharrezko heziketa jaso dezaten.

Izpta.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.